

LANKIDETZARAKO ESPARRU HITZARMENA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN

ETA _____ UNIBERTSITATEAREN ARTEAN

BILDUTA

Batetik, Marta Barandiaran Landín Andrea, UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea, UPV/EHUren izenean eta ordezkari gisa jardunez gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko UPV/EHUko errektoreordearen 2017ko urtarrilaren 25eko EBAZPENEAN ezarritako atribuzioen arabera (EHAA, 2017ko otsailaren 3koa).

Eta bestetik, _____ jauna, _____ Unibertsitateko (helbidea) (errektorea, errektoreordea edo legeordezkaria), haren izenean eta ordezkari moduan, _____ legeak ematen dion eskuduntzarekin.

AZALTZEN DUTE

1. Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek, haien nortasunaren eta helburuen arabera, garapen zientifikoan eta haren aplikazioetan oinarrizko lana egiten dutela, gizartearen onerako.
2. Langileek eskarmentua eta ezaupideak elkartrukatzea oinarri-oinarrizko interesa dela, bi erakunde horiek aurrera egin dezaten eta gizarteari beren zerbitzuak eskaini diezazkioten.
3. _____ Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak interes komunak dituztela zientziaren eta kulturaren arloan.
4. Bi erakundeoi _____-ko herrien eta Espainiako herrien arteko lotura kultural, zientifiko eta akademikoak estutzea interesatzen zaiela.

Horregatik, erabaki dute bi erakundeen artean Lankidetzarako Hitzarmena sinatzea, honako klausula hauekin:

I.- HELBURUAK

Hitzarmen honen helburuak dira ikasketa-programa bateratuak garatzea, irakaskuntzaren alorrean trukeak egitea eta elkarlanean aritzea, ikasleak formatzea eta ikertzea; hori, beherago agertzen diren zehaztapenen arabera.

Hitzarmena aurrera eraman behar da bi herrialdeen artean zehaztutako lankidetzakultural eta zientifikoaren esparruaren barruan.

II.- LANKIDETZA MOTAK

Unibertsitateen arteko elkarlanak honako hauek hartzen ditu bere baitan:

1. Informazioa eta argitalpenak trukitzea, baita liburutegien artean ere.
2. Irakasleak eta ikertzaileak trukitzea, erakunde horietan eskainitako ikastaroak osatzeko.
3. Mintegiak, mintzaldiak eta sinposioak antolatzea.
4. Ikerkuntza bateratuak egitea.
5. Ikasketa programa eta plan bateratuak antolatzea.
6. Ekipo eta material espezifikoak erabiltzea.
7. Bisita laburrak egitea.
8. Erakunde hartzailea bereziki aditua den ikerketa-arlo horietan ikasle graduatuak trukitzea.
9. Graduatu aurreko ikasleak trukitzea Europako Batasunaren eta beste Nazioarteko Programa batzuen esparruan.
10. Bi aldeek adostutako beste lankidetzak-jarduera batzuk aurrera eramatea.

III.- PROGRAMA/PROIEKTU ESPEZIFIKOAK

Erakunde bakoitzeko sailek edo zentroek zehaztutako programa edo proiektu bakoitzerako hitzarmen espezifiko bat egin behar da. Azpiz hitzarmen horietan informazio hau jarri beharra dago:

- Programa edo proiektuaren jatorria, izaera eta deskribapena.
- Erakunde bakoitzeko partehartzaileen eta arduradunen izenak.
- Programa edo proiektuaren iraupena.
- Proiektuko gastuak ordaintzeko aurreikusitako finantza-baliabideak eta diru horren banaketa.

-Ikasketa-programa bateratuen kasuan, aintzatespen eta baliozkotze akademikoaren inguruan egindako aurreikuspenak.

-Gonbidatuek unibertsitate-jardueretan eta abarretan parte hartzeko eta ostatu hartzeko egindako aurreikuspenak.

-Hitzarmenaren iraunaldia.

-Zein kasutan iraungiko den hitzarmena, iraunaldiaren amaieraz aparte.

Azpihitzarmen horiek dagozkien Unibertsitateko Agintaritza Akademikoek onartu behar dituzte.

IV.- LANKIDETZA-EREMUAK

Hezkuntza eta ikerkuntza arloko lankidetzak bi unibertsitateek komunak dituzten esparruetan burutuko da.

Esparru horietan programa eta jarduera anitz egon daitezke, eta guztiak dagozkien azpihitzarmenaren bidez zehaztu behar dira.

V.- FINANTZA-BALDINTZAK

Erakundeen artean ez da inolako finantza-konpromisorik izango aurrerantzean programak edo proiektuak burutzeko. Lankidetzajarduerak, besterik esaten ez bada, Nazioarteko Hitzarmenen esparruko fondoei lotuta egongo dira; programa edo proiektu bakoitzeko zehaztapenak aparte azalduko dira.

VI.- AINTZATESPENA ETA BALIOZKOTZEA

Europako nahiz nazioarteko programen edo elkartrukeen esparruan, ikasketa bateratuko edo ikasleen mugikortasuneko programetan bi aldeek ikasketa horiek elkarren artean aintzatesteko eta baliozkotzeko sistema akademikoa ezarriko da. Sistema hori azpihitzarmen bakoitzean deskribatu behar da eta bi unibertsitateetan dagozkien Agintaritza Akademikoek onartu behar dute.

VII.- JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Hitzarmenari jarraiki burutzen diren jarduera bateratuetatik eratorritako informazioa bi aldeek eskura izango dute, beste araurik jartzen ez bada.

Garatu daitezkeen patenteak asmatzailearen eta haren erakundearen artean patenteei buruz zehaztuta dauden arauetara eta legei lotuta egongo dira. Patenteak erabiltzeari buruzko hitzarmenak asmatzaile guztiek sinatu behar dituzte.

VIII.- HIRUGARRENEN PARTE-HARTZEA

Hitzarmenaren helburu den lankidetzaren UPV/EHUren edo _____ Unibertsitatearen eta hirugarrenen arteko kontratuen edo beken bitartez finantzatzen bada, kontratu edo beka horiek hitzarmena sinatzen duten erakundeek bakarrik erabili ditzakete. Dena den, horrek ez du esan nahi bi unibertsitateek aurrerantzean ezin dituztenik hirugarrenekin hitzarmenak sinatu.

IX.- ISILPEKO INFORMAZIOA

Hitzarmen honen edo hitzarmen hau aurrera eramatearen eraginez lortutako isilpeko informazioa herrialde hartzailearen legeari jarraiki babestu behar da.

XI.- KOORDINAZIOA

Alde bakoitzak batzorde edo arduradun bat izendatuko du hitzarmenaren esparruan burutzen diren jarduerak koordinatzeko eta berrikusteko. Koordinatzaileak aldian-aldian harremanetan jarriko dira, lankidetzaren aurrera eramaten laguntzeko.

X.- INDARREAN JARTZEA ETA IRAUNALDIA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta lau urte iraungo ditu; gainera, bi aldeek duten interesaren eta borondatearen arabera, eta hala adosten badute, berriro egin daiteke, idatziz, denboratarte beretarako.

Bi aldeetako edozein hitzarmena suntsitzeko gai da. Horretarako,

I. Beste aldeari jakinaraziko dio hitzarmena aldatu edo suntsitu nahi duela eta zein egunetarako egin nahi duen hori, idatziz eta sei hilabete lehenago.

II. Beste aldeari 30 egun emango dizkio erantzuteko. Denbora hori pasatutakoan bi aldeak ados daudela segurutzat joko da eta proposamena onartu egingo da.

III. Hitzarmena suntsitzea ez da zigortuko.

IV. Hitzarmena suntsitzen bada, bi aldetako inork ez du bestearen aurrean galera ekonomikoen edo beste edozein galeren ardura izango.

V. Hitzarmena bukatzen bada, hari jarraiki egindako akordioak ez dira baliogabetzen.

Bi aldeetako erakundeen ordezkariak dokumentu honen bi ale sinatu, adostu eta izenpetzen dituzte, eta dokumentuko klausula guztiak onartzen dituzte.

**MARTA BARANDIARAN LANDIN
ANDREA**

_____ Dr. (Bete beharrekoa)

**EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEKO
KOORDINAZIOAREN ETA
NAZIOARTEKO HARREMANEN
ARLOKO ERREKTOREORDEA**

**ERREKTOREA / ERREKTOREORDEA,
ORDEZKARI ESKUDUNA
_____ UNIBERTSITATEA**

DATA

DATA